Herri Ametsa Ikastola
Ikastola txikia, familia handia

AMESLARIOK... ZER BERRI?

ASTEKARIA: 86. alea | DATA: 2026/10/30

GUREAN

GAU BELTZA

Gau Beltza aipatzen denean sarritan gure gizartean urrutira begira jartzen gara. Estatu Batuek mendebaldeko gizartean duten eragina da horren arrazoia. Baina, azken urteotan hori aldatu nahian gabiltza Euskal Herriko hainbat txokotan, baita gurean ere, noski. Ikastolan apaingarri bereziak prestatzeaz gain, ekintza ugarirekin bete dugu gaurko eguna. Ospakizunarekin... bihar jarraitu, Arimen Gauean!



ALTZAKO GAU BELTZA



GURE PLANAK

BAZENEKITEN...

... Gau Beltza ez dela asmakizun berri bat edo Ingalaterratik nahiz Estatu Batuetatik zuzenean ekarritako Halloween festa? Mendeetan zehar Euskal Herriko landa-eremuan bizirik iraun zuen tradizio bat da, eta azken urteotan berreskuratzen ari garena.



ZUEN PROPOSAMENAK HONA BIDALI:
melvira@herriametsa.eus